

Febronianismoa

XVIII. mendean Alemaniako katolikoek antean gertatu zen mugimendua, aita santuaren eskumena Eliza unibertsaletik eta *kontzilio ekumenikotik dagoela baieztatzen zuena eta hari barruti sekularreko eskumena ukatzen ziona.

Justinus Febronius ezizenez J.N. von Hontheim, Trier-eko apezpiku laguntzaileak liburu bat idatzi zuen, mugimenduaren oinarri bihurtu zena. Ezizen hortixe du izena febronianismoak.

Frantziako *galikanismoaren parekoa izan zen febronianismoa.

Ik. Aita santua; Eliza Katolikoa.

Fedea

Latinetik dator hitza, eta, jatorriz, inoren gain ipintzen den konfidantza edo usteonarekin dago lotuta, beraz.

Fedea edo sinestea hitza entzutean, iruditzen zaigu aurkitzen garela, berehala, erlijio-alorrean, hau da, gizakiak eta Jainkoak beren artean dituzten harremanetan. Askotan ez gara konturatzen fedea (beste teologi gaiak bezalaxe) berez giza errealtateak dela, gero erlijio-mailan esanahi berriak hartu baino lehen. Kristau-fedekak, baditu bere zainak gizarteko fedearen esperientzian. Ikus dezagun orain, fedea zer den giza bizitzan: fedearen antropologia.

Sinesmena hitzak, giza esperientzian, bi esanahi nagusi hauek ditu:

1. Egiaren bat adimenez onartzea. Guk zuzenean ezin jakin dugun zerbait, norbaiten edo talde baten *aitormenez egiazat hartzea. Gure jakite eta jokabide gehienek (hasieran behintzat) iturburu horixe izan ohi dute. Hau da fedearen ezagutza-alderdia: "sinesten dut hori".

2. "Zugan sinesten dut" esatean, zu hori gure bizitzako laguntzat onartzen dugula adierazi nahi dugu; eta horregatik, berak esaten didana ontzat ematen dudala, lehenago pertsona gisa onartu dudalako.

Bi esanahi horiek elkartuta aurkitzen dira beti, eta fedearen lehenengo esanahi hori bigarrengorenetik dator beti. Honela ikusten badugu fedea, adiskidetasunetik gertuago dago, jakintzatik baino. Funts-funtsean giza fedea bi lagunen arteko harremanen eta elkartasunezko biziaren muina da, gizakiei dagokien mailako egiazko harremanak gertagarri egiten dituenak. Fedea, beraz, edozein elkarte-bizieraren sorburua eta oinarria da. Eta alderantziz, familian, elkarrean edo herrian lagunenganako fedea ahuldu edo galtzen bada, era berean, gizarteko edo

famili biziera oso zaila edo ezinezkoa gertatzen da.

Giza fedek, norbere bizitzan beste norbait onartzea denez, berekin darama beti arriskuarren alderdia. Izan ere, fedea gure *libertatearen ondorioa da, eta ez adimenaren azken hitza. Ez du honek esan nahi, fedea zentzugabekeria denik; bere arrazoiak baditu. Baina, arrazoi horiek ez dira, ordea, fedea halabeharrezko egiten dutenekoak. Bi gaztek, elkar ezagutzean eta maitasunean elkarrenganako sinestea dutenean, arrisku hori bera bizitzen dute.

Lagunen arteko fedek berez darama aurrerabide- edo heldutasun-dinamika, elkarren ezagutze sakonago eta kritikagoaren bidean. Dinamika horretan fedea galbahatu, sakondu eta pertsonalagotu egiten da.

Giza fede edo sinesmen horretatik abiatu gaitzke erlijiozko fedez mintzatzera.

Funtsean bi adierok bereizi behar ditugu, goian egindakoarenaren arabera:

1. Sin.: Sinesmena; Sinestea. Hasteko, erlijiozko menpekotasun-jarrerara funtsezkoa adierazten du fedek, zeinaren bidez fededunak bere konfidantza edo segurtasun osoa norbait trazzendenteagan eta absolutuagan (Jainkoagan) ipintzen bait du. Adiera honean bertute teologaletako bat da kristau-teologoentzat fedea: "Fides qua creditur".

2. Ondorioz, fede pertsonal horrekin onartzen diren sineskizun multzoa ere adierazten du: "Fides quae creditur".

* * * *

Elementu hauek ditu erlijiozko fede pertsonalak, 1. puntuari adierazi dugunak:

- Fededunaren nortasuna osorik hartzen du, beraren ahalmen guztiekin, eta fedea ez da adimen soilaren egintza.

- Fededunaren izatea sakon-sakonetik hartzen du eta benetan erabakiorra da horren bizitzan;

- Fededunaren bizitza osoaren eta egintza guztien erlijiozko iturri gertatzen da, horiei denei beraien balio erlijiozko eta salbagarria ematen diena.

Funtsezko adiera horien gain beste bi esanahi ditu fedek kristau-teologian:

- Goi-agerkunder ezaguturiko egia trazendeteei nor bere adimenaren atxekimendu sendoa ematea.

- Erlijio edo *Konfesio bakoitzaren *kredoa edo *sinesbidea: horrela esaten da, fede protestantea edo fede anglikanoa edo fede musulmana, etab. Kristau-fedeko gordai-

Fede fiduziala

lua Biblian eta Elizaren *Tradizioan dago, Eliza Katolikoaren sinestez.

Erljio guztiek dute fedearen elementua; hala ere, horren garrantzia eta adiera ez da benetan berdina. *Judaismoan, *kristautasunean eta *islamismoan erlijioaren erdigune-erdigunean dago fedea: horien benetako oinarria da Jainko bakarraganako fedea. Orokorri *erlijio profetikoen ezaugarri nagusia da fedearen funtsezko garrantzia.

Baina *erlijio mistikoetan (hinduismoan, budismoan) ere bere leku nabarmena du fe-deak.

Budismoak *salbamenari buruz duen ulerpen errazionalista eta guzti, Budagan sinestea eta haren lezua fedez onartzea eskatzen du: "Bide zortzikoitzaren" lehena da fedea. Bereziki aipatzekoa da, ordea, *Amida Buddha-ren *erlijioera, salbama horren *grazia, fedez hartzekoa, dela aitortzen duena. Budismoko fedea Buddha, *Dharma eta *Sangha ditu bere edukina. Hinduismoan, Bhagavad-gita-ko *bhakti salbabidea fedezko atxekimendutik dator.

Islamismoan, fedea Jainkoagandiko dohaina da eta benetakoa izango bada, bizitza zintzoa eskatzen du, bereziki *otoitza, *limosna, *baraua egitea, islamismoak aginduta daukan legez. Musulmanaren fedea funtsean Allah Jainko bakarragan eta Haren profeta Mahomet-engan sinestea da.

Erljio profetikoetako, bereziki kristautasuneko fedea kontzeptua, Jainko pertsonalaren erbelazioan oinarritzen da. Erbelazio horren bitarteko diren *profeten edo mezularien hitza Jainkoak berak egiaztatzen duela aitortzen du fededunak, fedez Jainkoari makurtuz, obeditzu eta atxekiz.

Fedea ez dator, beraz, giza arrazoimene-tik eta ez da frogarazionalen ziurtasunean oinarritzen; baina, bestalde, ez da arrazoimenaren kontrakoa; alderantziz giza arrazoimena, sentimena eta nahimena: denak jartzen ditu jokoan. Gainera fedezko atxekimendua bideratzeko garrantzi handia dute zeinuk: hau da, erbelazioaren jainkozkotasuna adierazten dutenek.

Hala ere, goi-agerkudearen testiguak eta *zeinuak gainditu egiten ditu fedea, Jainkoari berari eskaintzeko norberaren atxekimendua. Gizakiak, munduan nabari duen nahasmendua gaindituz, Jainko bakar eta traszendentean aurkitzen du bere finkalekua, fedearen bidez. Fedearen kontzeptu horrek gogoeta eta eztabaida luzeak sortu ditu fedearen eta arrazoimenaren, fedearen eta kulturaren arteko erlazioari buruz.

Kristautasunaren arabera, fedea da salbamenaren oinarri eta iturria. Fedezko sal-

bamena ez da, ordea, munduko eta historiako langintzatik ihes egitea edota hori gutxiestea. Gizakiak, *fede-aitorraren bidez, bere arrazoimena, erbelazioaren testiguak eta zeinu ikuskorrak gainditzeak ez du horien ukapena ekartzen eta bai horien areagoko balioztapena.

Arrazoimena, mundua, kulturgintza, historia, gizartea, etab. dira fedearen lekua: horiek denak irudiberritzen, indarberitzen eta "salbatzen" ditu fededunak, bere fedea benetan bere eguneroko lanean eta bizitzan biziz. Testuinguru horretan argitu behar da kristau-teologia modernoan, bereziki *protestantismoaren eraginez, handitu eta zabaldu den eztabaida: fedearen eta egiteen edo obren arteko erlazioari buruzkoa, alegia.

Orain arte egindako fedearen --Jainkoarekiko konfidantzako atxekimendu pertsonalaren-- analisiak kristau-fedeari ere baldin badagokio orokorki, zerbait espezifiko du horrek "kristau" izate horretantxe: Jesukristo bera bihurtu dela fedearen erdigune, Jainkoaren azkenburuko erbelazioa denez eta Jainko gizon egina denez bera, kristau-sinestean arabera.

Kristoren misterioaren --Kristoren beraren-- inguruan kokatzen dira kristau-fedeko egia guztiak edo *kredo osoa. Fede dogmatikoa --edo fedeko egia sinestea-- eta fede pertsonala --norberaren Jainkoarekiko atxekimendu konfidantzako osoa-- guztiz loturik daude Kristoren *misterioan.

Ik. Bertute teologalak; Sinesteak; Sinesbidea; Aitormena; Zientzia eta Erljioa.

Xabier Basurko
Paulo Agirrebaltzategi

Fede fiduziala

Sin.: Usteonezko fedea

Melanchton-en eta Erreformako teologoen esakunea, fede salbagarria adierazteko, fede historikoaren kontra edo. Hiru urrats bereizten ditu Melanchton-ek fede-prozesuan: ezagutza, atxekimendua, konfidantza --fiducia-- edo usteona. Hirugarren maila honetan, hau da, fede burutua --"fede formaduna edo graziak informaturiko fedea" esaten zuten teologo eskolastikoen-- gertatzen da benetan salbagarri eta zuzenesle edo justifikatzaile. Baina konfidantza hori ez da hutsaren gainean oinarritzen, Kristoren *Ebanjelioa onartzean baizik.

Ik. Erreforma protestantea; Protestantismoa.

Fede hutsaren bidezko zuzenespena

Ik. Fede-bidezko justifikazioa.